Marisa Arrúe indica que el PP en este caso presta la voz a la Asociación de Vecinos de Romo con la moción que a continuación da lectura.

Maitane Nerekan manifiesta que sobre la cuestión de fondo intervendrán en la siguiente moción aunque votarán a favor de ésta. No ve legitima la manifestación del PP respecto a que traen la voz de los vecinos ya que estos pretendían que sus planteamientos fueran asumidos y presentados de forma conjunta por todos los grupos de la oposición ante la imposibilidad de que directamente pudieran presentarla la propia asociación, cuestión que denuncia el grupo de Bildu y que espera se resuelva rápidamente. La práctica que ha realizado en este tema el PP demuestra actitudes que facilitan la deslegitimación de la política.

Agustín Ruiz, en nombre del grupo socialista, suscribe lo manifestado por Bildu en cuanto al procedimiento, aunque por respeto a los vecinos van a intervenir en este punto. Indica que el grupo socialista ha prestado su firma a la moción ya que como grupo están al servicio de las asociaciones de vecinos y con la de Romo tienen en particular una importante relación desde hace años. Recuerda que el año 2011 cuando estaban perfilando el programa electoral observaron que se estaba fraguando un malestar entre parte de los vecinos de Romo en relación a las alturas del proyecto y por eso el grupo socialista, estando de acuerdo con la necesidad del equipamiento, plantearon reducir una planta, a fin de conseguir un edificio más amable con el entorno. A partir de ahí el

programarekin koherentea den jarrera bati eutsi dio eta horregatik eman dute proiektua birformulatzea planteatzen duten mozioen aldeko botoa. Egun, auzokideen elkarteek proposamen zehatz bat dute, bi solairu murriztea eta fatxadako korten altzairua kentzea. Elkartearen lana aintzatesten dute eta, horregatik, ez dute aurkako botoa emango, ez, ordea, aldeko botorik ere, elkarte horrek ez baitie frogatu beren proposamena talde sozialistaren hauteskunde-programan aurkeztutakoa baino hobea denik. Hurrengo Osoko Bilkuran mozioa aurkeztu aurretik, non, Kultur Etxeari buruzko herri-galdeketa egitea planteatuko duten, auzotarrekin bilduko direla adierazten du; horrek alkateak aipatzen dituen parte-hartze proposamenak benetakoak diren ikusteko ere balioko du.

Joseba Arregui jaunak adierazten du Romoko Kultur Etxea inguru horri eta, oro har, Getxotar guztiei kultura- eta gizarte-erantzun bat emateko pentsatuta dagoela. Modu parte-hartzailean kudeatutako eta Osoko Bilkurak legitimatutako proiektua dela deritzo, birritan aho batez eta beste behin gehiengo osoz babestua izan baita. Horretaz gain, proiektua Udaleko talde politiko guztiak ordezkaturik zeuden adituen batzorde baten hausnarketen bidez bideratu zela gogorarazten du. Halaber, azken hauteskundeetan botorik gehien lortu zuen talde politikoaren hauteskunde-programan barnebildu zen proiektua izateak ematen dion legitimitatea du eta proiektu hori modu parte-hartzailean gizarteratu da elkarteekin, informazio publikoarekin topaketekin eta abar. Horregatik, hain zuzen, jatorrizko proiektuan zerbitzuei eta ekipamenduei dagokienez aldaketak sartu dira. Udaleko baliabideen erabileratik eta eraginkortasunetik

grupo socialista ha mantenido una actitud coherente con su programa electoral y por eso ha votado a favor de las mociones que planteaban la reformulación del proyecto. Indica que actualmente la asociación de vecinos tiene una propuesta concreta de reducir dos plantas y quitar el acero corten de la fachada. Reconoce el trabajo de la asociación y por ello no votarán en contra, pero no van a votar a favor ya que no se les ha demostrado por la asociación que esa propuesta es mejor que la presentada en el programa electoral del grupo socialista. Indica que se reunirán con los vecinos antes de presentar una moción en un próximo pleno, en la que plantearán una consulta ciudadana sobre la Kultur Etxea, lo que servirá también para ver si son reales las propuestas de participación que indica el Alcalde.

Joseba Arregui manifiesta que la Kultur Etxea de Romo está pensada para dar una respuesta cultural y social a dicho entorno y a los vecinos de Getxo en general. Opina que es un proyecto gestionado de forma participativa y legitimado por el pleno ya que dos veces lo ha apoyado por unanimidad y otro por mayoría absoluta. Recuerda también que el proyecto deviene de las reflexiones de un comité de expertos en el que estaban representados todos los grupos municipales del Ayuntamiento. Asimismo, también tiene la legitimidad de que es el proyecto que se incorporó al programa electoral del grupo político más votado a las últimas elecciones y este proyecto se ha socializado de forma participativa con asociaciones, información pública, encuentros, etc. Y por ese motivo se han incorporado al proyecto inicial modificaciones en servicios y equipamiento. Indica que es un proyecto diseñado desde la

diseinatutako proiektua dela adierazten du, eraikin bakar batean lau eraikinetan sakabanatuta zegoena elkartuz. HAPNak ematen dion eraikigarritasun osoa egikaritzen duen proiektua, ez baitago inolako arrazoirik titulartasun publikoko eraikigarritasunari uko egiteko. Finantzaketa beren baliabideekin egiten dela ere adierazten du, zorpetu beharrik gabe. Proiektua udal-teknikariek eta elkarte desberdinek abalatuta dagoela adierazten du. Romoko Auzokideen Elkartearen bi solairu murrizteko eskariaren aurrean, proposamen hori onartuz gero ez litzaiekeela behar guztiei erantzungo dio eta beste instalazio batzuei eutsi beharko litzaiekeela. Auzokideen Elkarteak planteatzen duen aukerak, hots, Nagusien Etxea eta Euskaltegia egungo kokapenetan mantentzeak, ekipamendu horiek txukunduz, oso kostu ekonomiko handiak eragingo lituzke. Nagusien Etxea egokitzeak 6 milioi euroko inbertsioa eskatuko luke, aldiz, Kultur Etxea proiektuko bi solairu murrizteak proiektuaren zenbatekoa 2 milioi eurotan murriztea ekarriko luke, beraz, alde ekonomiko handia legoke. Horretaz gain, proiektuak egun Euskaltegiak eta Nagusien Etxeak hartzen dituzten espazioak aske uztea eragingo luke, zeinak, Gobernu Taldeak etxebizitza babestuak eta tutoretzapeko apartamentuak eraikitzera bideratzea planteatzen duen. "Korten" altzairuaren erabilerari dagokionez, udal-talde politiko guztietako aditu guztien babesa duela adierazten du, proiektu irabazlean sartzen baitzen, 2001eko HAPNan aurreikusitako lerrokadurak eta altuerak errespetatzen dituena, proiektu zehatz horretarako aldatuak izan gabe. Gobernu Taldea elkarteak oinezkoentzako zona bat sortzeari dagokionez egindako proposamenera irekita dagoela adieraziz amaitzen du.

utilización y eficiencia de los recursos municipales agrupando en un solo edificio lo que estaba disperso en cuatro edificios. Un proyecto que ejecuta toda la edificabilidad que el PGOU le otorga, ya que no existe razón para renunciar a una edificabilidad de titularidad pública. Indica también que la financiación se realiza con recursos propios sin recurrir al endeudamiento. Manifiesta que el proyecto esta avalado por técnicos municipales y también por diferentes asociaciones. Ante la petición de la Asociación de Vecinos de Romo de reducir dos plantas manifiesta que de admitirse no se daría respuesta a todas las necesidades y tendrían que mantenerse otras instalaciones. La alternativa que plantea la Asociación de Vecinos de mantener la Nagusien Etxea y el Euskaltegi en sus actuales ubicaciones adecentando dichos equipamientos, supondría unos costes económicos muy importantes. Manifiesta que la adecuación del Nagusien Etxea requeriría una inversión de 6 millones de euros mientras que la reducción de dos plantas del proyecto Kultur Etxea de Romo supone reducir su importe en 2 millones y por tanto existe un diferencial económico importante. Además el proyecto supone liberar los actuales espacios de euskaltegi y Nagusien Etxea que el equipo de gobierno plantea destinarlos a la construcción de vivienda protegida y apartamentos tutelados. En relación a la utilización del acero "corten" esta avalada por especialistas de todos los grupos políticos municipales ya que se recogía en el proyecto ganador, proyecto que respeta las alineaciones y alturas recogidas en el PGOU de 2001 sin que se hayan modificado para este proyecto en concreto. Finaliza indicando que el equipo de gobierno esta abierto a la propuesta que manifiesta la asociación de la creación de un espacio peatonal.

Marisa Arrue andreak adierazten du 2011az geroztik Kultur Etxearen proiektua aldatzeko aurkezten den laugarren mozioa dela, auzotarren eskaerei kasu eginez. 2011n, mozioa PP eta PSE-EE taldeen botoekin eta Bildu taldearen abstentzioarekin onartu zen, baina alkateak, zeinak demokratikotik ezer gutxi duen, ez du egikaritzen, izan ere, Osoko Bilkuran onartzen diren mozioen %15a soilik egikaritzen ditu. Gaur mozio hau auzotarren eskariz dakartela errepikatzen du eta PP-k Romon kultur etxe berri baten eraikuntza babesten duela, are gehiago, alkateak lehen zeuden instalazio zaharrak eraisteko agindu zuenetik. Alkateak Getxo Antzokiaren antzeko makro-proiektu bat eraiki nahi duela uste du eta jardunaldiak, topaguneak eta abar antolatzen dituelako kritikatzen du, baina ez du entzuten, egiten duen bakarra parte-hartzearen itxura egitea da. Hasiera batean, Nagusien Etxea Kultur Etxean kokatzea ez zegoela aurreikusita gogorarazten du eta, orain, bere erabiltzaile gehienen iritziaren aurka eraikin horretan kokatu nahi du. Kultur eraikin bat beharrezkoa dela deritzola adierazten du, baina bizilagunek eskatzen duten gisan, txikiagoa; horregatik, mozio honi eta eduki berbera duen hurrengoari beren babesa emango diotela adieraziz amaitzen du. Gobernu taldeari auzotarren eskaerei kasu egiteko eskatzen dio.

Marisa Arrúe indica que es la cuarta moción que presenta desde el 2011 para que se modifique el proyecto de la Kultur Etxea, atendiendo a las peticiones vecinales. En el año 2011 la moción se aprobó con los votos del PP y del PSE-EE y la abstención de Bildu pero el Alcalde que tiene poco de democrático no la ejecuta ya que únicamente cumple el 15% de las mociones que se aprueban en el pleno. Insiste en que hoy traen esta moción a petición de los vecinos y que el PP apoya la construcción de una nueva casa de cultura en Romo y más aún desde que el Alcalde ordenó derruir las antiguas instalaciones existentes. Estima que el Alcalde quiere construir un macroproyecto como el Getxo Antzokia y le critica porque organiza jornadas, encuentros, etc., pero no escucha y todo lo que hace es un paripé participativo. Recuerda que inicialmente el Nagusien Etxea no se contemplaba ubicar en la Kultur Etxea y ahora en contra de la opinión de la mayoría de sus usuarios se pretende instalar en dicho edificio. Finaliza indicando que opina que es necesario un edificio cultural pero más pequeño como piden los vecinos y por eso apoyarán esta moción y la siguiente porque son de contenido idéntico. Pide al equipo de gobierno que hagan caso a las peticiones vecinales.

Joseba Arregui jaunak adierazten du PP taldeak ez duela Getxorentzako kultura-proiekturik eta Osoko Bilkuran birritan proiektu honen alde bozkatu zutela, baina beti bezala, PP-k proiektuen hasiera babesten du eta, gero, bere iritzia aldatzen du. HAPN ez dela eraikin honetarako aldatu errepikatzen du eta

Joseba Arregui manifiesta que el PP no tiene proyecto cultural para Getxo e indica que en dos ocasiones en el pleno votaron a favor de este proyecto pero como siempre el PP apoya el inicio de los proyectos y luego cambia su opinión. Insiste en que no se ha modificado el PGOU para este edificio y recuerda al PP

PP-ri gogorarazten dio lehen proiektuak sotoa aurreikustearen aurka bozkatzen zutela eta, orain, berriz, auzotarren proposamenean defendatu egiten dutela, beren koherentziarik ezaren adibide garbia.

que antes votaban en contra de que el proyecto incorporara un sótano y ahora lo defienden en la propuesta vecinal lo que le parece un ejemplo de su incoherencia.

Marisa Arrue andreak erantzuten dio bere garaian sotoaren aldeko botoa eman zutela eta PP-k baduela kultur proiektu bat Getxorentzako, baina ez dutela Getxo Antzokiarena edo proiektu honen antzeko makro-proiekturik nahi. PP-k eraikin txikiak defendatzen ditu auzo desberdinetan, horrela, auzo bakoitzean kultur jarduerak gauzatu ahal izan ditzaten; auzotarrek Kultur Etxearen egungo proiektua ere ez dutela babesten gogorarazten du eta proiektuaren aurka dauden talde politikoetan Gobernu Taldearenean baino auzotarren boto gehiago daudela.

Marisa Arrúe replica que en su momento votaron a favor de un sótano y que el PP tiene un proyecto cultural para Getxo, pero que no quiere que se hagan macroproyectos como el Getxo Antzokia o este proyecto. El PP defiende pequeños edificios en los distintos barrios para que en cada barrio se puedan desarrollar actividades culturales y recuerda que los vecinos tampoco apoyan el actual proyecto de Kultur Etxea y que hay más votos de vecinos de Getxo en los grupos políticos que se oponen al proyecto que en el equipo de gobierno.

Mozioa bozkatzen da eta honako emaitza lortzen da: PP eta Bildu taldeen aldeko 13 boto, EAJ-PNV taldearen aurkako 10 boto eta PSE-EE taldearen 2 abstentzio-boto.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP y Bildu, 10 votos en contra, PNV y 2 abstenciones del PSE-EE.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

En consecuencia y por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Iazko otsailean, areto honetan, alderdi guztiek babestu zuten Romoko Auzokideen Elkarteak aurkeztutako proposamena; guztiek EAJk izan ezik. Proposatu genuen kultur etxearen proiektua berriro aztertzea, bai eraikina bera, bai edukia. Urte honetan, Udalak planteatutako ereduaren aurka azaldu da Romoko Auzokideen Elkartea. Besteak beste, handikeria, desegokia eta auzokideen zati handi baten iritziaren kontrakoa delako. Baina Udal Gobernu honek, auzokideen aldarrikapenari muzin eginez eta guztion artean ordaintzen dugun Getxoberri aldizkaria erabiliz,

Este mes de febrero se cumple un año desde que en este mismo salón de plenos todas las fuerzas políticas con representación en él (salvo el PNV), manifestaron su apoyo la propuesta planteada por la Asociación de Vecinos de Romo en favor de revisar su proyecto de Kultur Etxea tanto en continente como en contenido. Durante el año transcurrido la Asociación de Vecinos de Romo ha venido manifestando su rechazo al modelo planteado por el Ayuntamiento, entre otras razones por considerarlo desmesurado, inadecuado y contar con el rechazo de una gran parte del vecindario

jendea nahasi nahi du argazkiak trukatuz, egia ezkutatuz eta datuak manipulatuz. Otsailaren 16an romotarrok kalean emandako erantzunak argi utzi zion Udal Gobernuari jendeak ez duela gustuko kultur etxearen proiektua. Areago, horrela jarraituz gero, gehiegikeria honen gastuak zergen bidez ordaintzen dituztenen kontrakoa izango dela. Romoko Auzokideen Elkarteak zera esan nahi dizu: oraindik garaiz gabiltza: posible da beste kultur etxea eredu bat. Herriaren ohiuari kasu egin!

de Romo. Haciendo gala de un pasotismo y un desprecio inaceptable por las reivindicaciones vecinales, hemos visto cómo se utiliza el Getxoberri que pagamos entre todos para intentar confundir a la opinión pública a base de fotomontajes trucados, medias verdades y manipulación de datos. La respuesta dada por los vecinos de Romo el pasado domingo 16 de febrero dejó bien claro a este equipo de gobierno que su proyecto de Kultur Etxea no gusta y, que de seguir con el actual proyecto lo hará contra la voluntad de quienes sufragan con sus impuestos los gasto de megalómano proyecto. La asociación de vecinos de Romo quiere decirles que están ustedes a tiempo; que ''otra Kultur Etxea es posible'', y exigirle los cambios que el grito vecinal reclama.

Hori guztia kontuan hartuta, akordiorako ondoko proposamena aurkezten diogu Getxoko Udalbatzari:

1.- Egungo proiektuari 4. eta 5. solairuak kendu. Nahikoa da gaurko eta etorkizuneko bi auzo hauetako herritarren beharrei aurre egiteko.
2.- Nagusien Etxea eta Udal Euskaltegia gaur egun dauden tokietan mantentzea; hori bai, aipatutako eraikinei behar diren konponketak eginda. Gainera, Romorentzako adierazgarri diren bi eraikinak (Nagusien Etxea eta Udal Euskaltegia) mantendu ahalko lirateke.

3.- "Acero corten" delako kanpoko soinekoa ez ipini. Horrek obra garestitzeko baino ez du balio.
4.- Lehengo eraikinaren mendebaldeko fatxadaren lerroa mantendu eta "eskoletako etxeen" jabeekin akordioa egin, Aurrezki Kutxa eta Ezequiel Agirre kaleen artean oinezko bide bat egiteko. Halaber, Santa Eugenia plaza erabat zaharberri.

Por todo ello presentamos al pleno del ayuntamiento de Getxo la siguiente propuesta de acuerdo:

1.-La supresión de las plantas 4 y 5 del proyecto actual. Suficiente para cubrir las necesidades actuales y futuras de la población de estos dos barrios de Getxo.
2.- Mantenimiento de la Nagusien Etxea y Euskaltegi municipal en los locales que actualmente ocupan, abordando, por supuesto, las mejoras necesarias que respondan a los deseos y demandas de sus usuarios. Ello, asimismo, permitiría la pervivencia de dos edificios emblemáticos para el barrio de Romo
3.- Desechar la colocación del revestimiento de acero corten, cuya única aportación es el encarecimiento de la obra.
4.- Mantenimiento de la alineación de la fachada oeste del edificio antiguo de las escuelas y llegar a un acuerdo de regularización de límites con los propietarios de las "casas de las escuelas" que permita la creación de un vial peatonal que una las calles de Caja de

Ahorros y Ezekiel Aguirre. Asimismo efectuar la reforma integral de la plaza de Sta. Eugenia.

5.- Udalak, Kultur Etxearen erabilera **adostea**, bai herritarrekin, bai auzoko elkarte guztiekin.

5.-El Ayuntamiento debe **consensuar** con la ciudadanía y los distintos agentes implicados del municipio las actividades y usos que se desarrollarán en la futura Kultur Etxea.

**26.- GETXO-BILDU ETA PSE-EE ALDERDIETAKO UDAL TALDE POLITIKOEK BATERA AURKEZTUTAKO MOZIOA: ROMOKO KULTURA ETXEAREN PROIEKTUA.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzeari uko egiten dio aurrekoaren berdin-berdina baita; auzokideen elkartearen mozioa delako; beraiek aurkezten dute auzokideek zuzenean aurkeztu ezin dutelako. Egoera hori kritikatzen dute eta ahalik eta eperik laburrenean konpontzea itxaro dute. Auzotarrak zoriontzen ditu Kultur Etxearen proiektua Udaleko eztabaida politikoan kokatzea eta PP taldeak gainerako oposizioak planteatzen duen mozioa bozkatzea lortu baitute. Harrituta dagoela adierazten du, pasa den ostiralean Gobernu Taldeak deitutako prentsaurrekoan udalbatza-kideez gain bi teknikari ere agertu zirelako. Proiektu honek Getxo Antzokiarenaren antza duela adierazten du hura onartzeko eta kudeatzeko moduari dagokionez, inolako parte-hartzerik gabeko proiektua baita, inposatua; ez, ordea, eraikinen edukian, kasu honetan hiritarrekiko eta elkarteekiko hurbilagoak baitira. Informatzea parte hartzearen lehenengo fasea dela adierazten du, izan ere, parte hartzeak, berez, erabakietan ere parte hartzea esan nahi du. Pasa den ostiralean Gobernu Taldeak euskaltegiaren eta

**26.- MOCIÓN CONJUNTA DE LOS GRUPOS MUNICIPALES BILDU Y PSE-EE S/ PROYECTO DE LA KULTUR ETXEA DE ROMO.**

Maitane Nerekan renuncia a la lectura de la moción ya que es idéntica a la anterior y es una moción de la asociación de vecinos y ellos la presentan ya que los vecinos no pueden presentarla directamente, situación que critica y que espera que se resuelva en breve plazo. Felicita a los vecinos ya que han conseguido que el proyecto de la Kultur Etxea se sitúe en el debate político municipal y también que el PP vaya a votar una moción que plantea el resto de la oposición. Manifiesta su sorpresa porque el equipo de gobierno el pasado viernes convocó una rueda de prensa en la que además de los corporativos comparecieron dos técnicos. Indica que este proyecto se parece al Getxo Antzokia en cuanto a la forma de su aprobación y gestión ya que es un proyecto sin participación y con imposición pero no en los contenidos de los edificios que en este caso son más cercanos a los ciudadanos y asociaciones. Manifiesta que informar es la primera fase de la participación, ya que la participación como tal supone también tomar parte en las tomas de decisión. Recalca que lo indicado por el equipo de gobierno sobre el futuro de los edificios

Nagusien Etxearen eraikinen etorkizunari buruz adierazitakoak harritu egin dituela adierazten du, izan ere, oraindaino gai horri buruz galdetu zaien guztietan ez dute erantzun argirik jaso eta, orain, derrepente, dirudienez, aztertutako eta teknikoki egiaztatutako proposamen bat aurkezten da. Gobernu Taldeak aipatzen dituen aho batez hartutako akordioak talde guztiek parte hartu ezin izan zuten legegintzaldikoak direla gogorarazten du. Arreta deitzen dio Gobernu Taldeak proiektuaren borondateari eta beharrari dagokionez adierazten duen konbentzimenduak, izan ere, horrela usteko balute, ez lukete inolako arazorik eduki behar horri buruzko herri-galdeketa egiteko. Botoen legitimazioari dagokionez, ezin daitekeela argudio gisa erabili uste du, aurka dauden taldeek lortutako botoak gehiago baitira; gainera, lau urtean behin bozkatzen da eta ez gaude demokrazia parte-hartzaile batean.

del euskaltegi y del Nagusien Etxea el pasado viernes les ha sorprendido ya que hasta ahora cuando se ha preguntado sobre esta cuestión no han recibido ninguna respuesta clara y ahora de repente se presenta una propuesta al parecer estudiada y contrastada técnicamente. Recuerda, también, que los acuerdos de unanimidad a los que se refiere el equipo de gobierno se refieren a una legislatura en la que no todos los grupos pudieron participar. Le llama la atención el convencimiento que manifiesta el equipo de gobierno acerca de la bondad y necesidad del proyecto ya que si así lo estiman no tendrían que tener ningún problema en una consulta popular sobre el mismo. Respecto a la legitimación de los votos opina que no se puede utilizar como argumento ya que son más los votos recibidos por los grupos que están en contra, además de que se vota cada cuatro años y no estamos en una democracia participativa.

Marisa Arrue andreak adierazten du Alderdi Popularrak ez duela inolako erreparorik Bildurekin mozio batean parte hartzeko. Alkateak Euskaltegiaren eta Nagusien Etxearen lokaletan babestutako etxebizitzak eraikiko direla adierazi duen prentsaurrekoak harriturik utzi dute. Justifikazio urgentea izan dela iruditzen zaio eta zalantzak ditu hori etorkizun batean gauzatuko denari buruz; hain zuzen, Gobernu Taldeak Nagusien Etxearen zaharberritze- eta handitze-proiektua idazteko txostena eskatu zuen eta 100.000 euro kostatu zen txosten horren edukia ezagutu nahiko luke. Nagusien Etxea hirugarren solairura lekualdatzea akats bat dela deritzo, horren erabiltzaile askok dituzten mugikortasun-arazoak eta kokapen horrek dakartzan sarbide- eta ebakuazio-zailtasunak kontuan hartuta. Nagusien Etxeko instalazioetan, egun,

Marisa Arrúe indica que el Partido Popular no tiene ningún reparo en participar en una moción del Bildu. Le sorprende la rueda de prensa en la que el Alcalde indicó que en los locales del Euskaltegi y del Nagusien Etxea se van a construir viviendas protegidas. Cree que es una justificación urgente y que duda que se materialice en un futuro, de hecho el equipo de gobierno pidió un informe para la redacción del proyecto de reforma y ampliación de la Nagusien Etxea y quisiera conocer el contenido del informe que costó más de 100.000 euros. Le parece erróneo trasladar la Nagusien Etxea a un tercer piso debido a los problemas de movilidad de muchos de sus usuarios y también las dificultades de accesos y evacuación que esa ubicación conlleva. Manifiesta que actualmente las instalaciones del Nagusien Etxea tiene en la misma planta

gizarte-guneak eta kafetegia solairu berean daudela adierazten du, aldiz, proiektu berrian, solairu desberdinetan aurreikusten dira. Nagusien Etxea zaharberritzea egokiagoa litzatekeela deritzo eta, horrela solairu bat murriztu ahal izango litzatekeela. Euskaltegiari dagokionez, hori laugarren solairuan jartzea aurreikusten da, bosgarren solairuan musika-taldeentzako, abesbatzentzako… lokal guztiak daudenean, kontuan hartuz horien jarduerak irakaskuntza-lanetan eragin dezakeela. Beraz, egun duen kokapena egokiagoa dela deritzo, ondorioz, beste solairu bat ere murriztu ahal izango litzateke. Bestalde, Gobernu Taldeak aipatzen duen solairu bakoitzeko aurreztuko litzatekeen milioi bat eurori korten altzairua kentzeak ahalbidetuko lukeen beste bi milioi euroko aurrezpena gehituta, lau milioiko aurrezpena legoke, zeina, nahikoa den Euskaltegiaren eta Nagusien Etxearen zaharberritze-kostuari aurre egiteko. Soluzio horrekin, auzotarrak gustura geratuko lirateke eta hori da Alderdi Popularrak proposatzen duen soluzioa.

los espacios sociales y la cafetería, cuestión que en el nuevo proyecto están situados en plantas diferentes. Estima que sería más procedente reformar la Nagusien Etxea y con ello se podría bajar una planta. En relación al Euskaltegi este se prevé en la cuarta planta cuando en la quinta planta están todos los locales de grupos musicales, corales, etc., cuya actividad puede interferir en las labores de enseñanza, por lo que opinan que es mejor su ubicación actual y por tanto también se podría suprimir otra planta. Respecto al ahorro de un millón de euros por planta que manifiesta el quipo de gobierno asumiendo el mismo el coste y el ahorro que supondría suprimir el acero corten que está valorado en cerca de dos millones supondría un ahorro de cuatro millones con lo que se podría hacer frente a las refomas del Euskaltegi y del Nagusien Etxea y con esta solución se contentarían los vecinos y es la solución que el Partido Popular apoya.

Joseba Arregui jaunak erantzuten dio Nagusien Etxearen eta Euskaltegiaren kokapenak babestutako etxebizitzak egiteko erabiltzea Gobernu Taldearen proposamena dela eta HAPNaren aldaketa eragiten duela, beraz, Osoko Bilkuraren gehiengoa eskatuko duela. Kultur Etxearen parte-hartze prozesua proiektua zehaztu aurretik hasten dela dio, Kultur Etxeak eta Udaleko beste unitate batzuk elkarte desberdinekin egindako galdeketen eta bileren bitartez. Nagusien Etxea zaharberritzeko proiektua 2005ekoa dela adierazten du eta, beraz, ez da Eraikuntzaren Kode Teknikora egokitzen. Horrek proiektu berria egitea eskatuko du eta, gainera, proiektua hori aukera bat da

Joseba Arregui replica que la propuesta de las ubicaciones del Nagusien Etxea y del Euskaltegi para viviendas protegidas es la propuesta del equipo de gobierno y que supone una modificación del PGOU por lo cual exigirá una mayoría del pleno. Insiste en que el proceso de participación de la Kultur Etxea nace desde antes de definir el proyecto a través de las consultas y reuniones celebradas con el Aula de Cultura y otras unidades del ayuntamiento con diferentes asociaciones. Manifiesta que el proyecto de reforma del Nagusien Etxea es del año 2005 y que por lo tanto no se adapta al código técnico de edificación lo que requeriría un nuevo proyecto y además de que dicho proyecto es una

egungoarekiko desberdina gobernu taldearentzako.

opción de un equipo de gobierno diferente al actual.

Maitane Nerekan andreak prentsaurrekoan Gizarte Zerbitzuetako arduradunak eta Kultur Etxearen zuzendaria agertu izanak harritu egin duela adierazten du, horrek proiektuari babesa eta abal teknikoa ematen zaiola adierazten baitu, orain arte ezer ez zegoela erabakita adierazten zenean. Ez du ulertzen Gobernu Taldeak dioen bezain parte-hartze handia egon bada hainbeste auzotar biltzen dituen auzotarren adierazpena egotea. Oraindik proiektua alda daitekeela deritzo eta debate honek proiektu zehatz honen inguruan eta, oro har, kultur ekipamenduen kudeaketari buruz hausnarketa egiteko balio beharko lukeela deritzo.

Maitane Nerekan manifiesta su sorpresa porque en la rueda de prensa comparecieran los responsables de Servicios Sociales y el director del Aula de Cultura lo que supone un apoyo y aval técnico al proyecto, cuando hasta ahora se estaba manifestando que no había nada decidido. No entiende que si ha existido tanta participación como manifiesta el equipo de gobierno se produzca una manifestación vecinal que reúna tantas personas. Estima que se está a tiempo de modificar el proyecto y cree que este debate debe de servir para reflexionar sobre este proyecto en concreto y sobre la gestión en general de los equipamientos culturales.

Marisa Arrue andreak Arregui jaunari argitzen dio Osoko Bilkuran eraikin jakin baterako HAPNaren aldaketa aho batez onartu zela, gehienezko neurriak zehaztuz, Getxo Antzokiarekin gertatu zen modu berean, zeina ere, gero, txikiagotu egin zen; kasu honetan ere gerta daitekeen gisan. Alderdi Popularra eraiki daitekeen okupazio guztia eraikitzearekin ez dagoela ados azpimarratzen du.

Marisa Arrúe aclara al señor Arregui que es verdad que el pleno por unanimidad aprobó una modificación del PGOU para un edificio determinando las máximas dimensiones, lo mismo que ocurrió con el Getxo Antzokia, que luego se achicó como también podría realizarse en este caso. Insiste en que el Partido Popular no está de acuerdo en edificar toda la ocupación posible.

Joseba Arregui jaunak erantzuten dio aldaketa proiektua hautatu ondorengoa dela eta Plan Nagusian inposatutako bloke gisa zehazten dela. Korten altzairuari dagokionez, diseinu irabazlearen berezko elementu bat dela adierazten du eta errespetatu egin behar dela; gainera, eraikinak energia-eraginkortasun kontuengatik fatxada bikoitza behar du.

Joseba Arregui replica que la modificación es posterior a la elección del proyecto que en el Plan General se define como un bloque impuesto. En relación al acero corten manifiesta es un elemento propio del diseño ganador que hay que respetar y además de que todo el edificio necesita una doble fachada por cuestiones de eficiencia energética.

Mozioa bozkatu egiten da eta honako emaitza hau lortzen du: PP eta Bildu

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP,

taldeen aldeko 13 boto, EAJ-PNV taldearen aurkako 10 boto eta PSE-EE taldearen 2 abstentzio-boto.

Bildu, 10 votos en contra, PNV y 2 abstenciones, PSE-EE.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioak:

En consecuencia, por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Iazko otsailean, areto honetan, alderdi guztiek babestu zuten Romoko Auzokideen Elkarteak aurkeztutako proposamena; guztiek EAJk izan ezik. Proposatu genuen kultur etxearen proiektua berriro aztertzea, bai eraikina bera, bai edukia. Urte honetan, Udalak planteatutako ereduaren aurka azaldu da Romoko Auzokideen Elkartea. Besteak beste, handikeria, desegokia eta auzokideen zati handi baten iritziaren kontrakoa delako. Baina Udal Gobernu honek, auzokideen aldarrikapenari muzin eginez eta guztion artean ordaintzen dugun Getxoberri aldizkaria erabiliz, jendea nahasi nahi du argazkiak trukatuz, egia ezkutatuz eta datuak manipulatuz. Otsailaren 16an romotarrok kalean emandako erantzunak argi utzi zion Udal Gobernuari jendeak ez duela gustuko kultur etxearen proiektua. Areago, horrela jarraituz gero, gehiegikeria honen gastuak zergen bidez ordaintzen dituztenen kontrakoa izango dela. Romoko Auzokideen Elkarteak zera esan nahi dizu: oraindik garaiz gabiltza: posible da beste kultur etxea eredu bat. Herriaren ohiuari kasu egin!

Este mes de febrero se cumple un año desde que en este mismo salón de plenos todas las fuerzas políticas con representación en él (salvo el PNV), manifestaron su apoyo la propuesta planteada por la Asociación de Vecinos de Romo en favor de revisar su proyecto de Kultur Etxea tanto en continente como en contenido. Durante el año transcurrido la Asociación de Vecinos de Romo ha venido manifestando su rechazo al modelo planteado por el Ayuntamiento, entre otras razones por considerarlo desmesurado, inadecuado y contar con el rechazo de una gran parte del vecindario de Romo. Haciendo gala de un pasotismo y un desprecio inaceptable por las reivindicaciones vecinales, hemos visto cómo se utiliza el Getxoberri que pagamos entre todos para intentar confundir a la opinión pública a base de fotomontajes trucados, medias verdades y manipulación de datos. La respuesta dada por los vecinos de Romo el pasado domingo 16 de febrero dejó bien claro a este equipo de gobierno que su proyecto de Kultur Etxea no gusta y, que de seguir con el actual proyecto lo hará contra la voluntad de quienes sufragan con sus impuestos los gasto de megalómano proyecto. La asociación de vecinos de Romo quiere decirles que están ustedes a tiempo; que ''otra Kultur Etxea es posible'', y exigirle los cambios que el grito vecinal reclama.

Hori guztia kontuan hartuta, akordiorako ondoko proposamena aurkezten diogu Getxoko Udalbatzari:

Por todo ello presentamos al pleno del ayuntamiento de Getxo la siguiente propuesta de acuerdo:

1.- Egungo proiektuari 4. eta 5. solairuak kendu. Nahikoa da gaurko eta etorkizuneko bi auzo hauetako herritarren beharrei aurre egiteko.

1.-La supresión de las plantas 4 y 5 del proyecto actual. Suficiente para cubrir las necesidades actuales y futuras de la población de estos dos barrios de Getxo.

2.- Nagusien Etxea eta Udal Euskaltegia gaur egun dauden tokietan mantentzea; hori bai, aipatutako eraikinei behar diren konponketak eginda. Gainera, Romorentzako adierazgarri diren bi eraikinak (Nagusien Etxea eta Udal Euskaltegia) mantendu ahalko lirateke.

2.- Mantenimiento de la Nagusien Etxea y Euskaltegi municipal en los locales que actualmente ocupan, abordando, por supuesto, las mejoras necesarias que respondan a los deseos y demandas de sus usuarios. Ello, asimismo, permitiría la pervivencia de dos edificios emblemáticos para el barrio de Romo

3.- "Acero corten" delako kanpoko soinekoa ez ipini. Horrek obra garestitzeko baino ez du balio.

3.- Desechar la colocación del revestimiento de acero corten, cuya única aportación es el encarecimiento de la obra.

4.- Lehengo eraikinaren mendebaldeko fatxadaren lerroa mantendu eta "eskoletako etxeen" jabeekin akordioa egin, Aurrezki Kutxa eta Ezequiel Agirre kaleen artean oinezko bide bat egiteko. Halaber, Santa Eugenia plaza erabat zaharberri.

4.- Mantenimiento de la alineación de la fachada oeste del edificio antiguo de las escuelas y llegar a un acuerdo de regularización de límites con los propietarios de las "casas de las escuelas" que permita la creación de un vial peatonal que una las calles de Caja de Ahorros y Ezekiel Aguirre. Asimismo efectuar la reforma integral de la plaza de Sta. Eugenia.

5.- Udalak, Kultur Etxearen erabilera **adostea**, bai herritarrekin, bai auzoko elkarte guztiekin.

5.-El Ayuntamiento debe **consensuar** con la ciudadanía y los distintos agentes implicados del municipio las actividades y usos que se desarrollarán en la futura Kultur Etxea.

**27.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HERRITARREK ETA ELKARTEEK UDALEAN PARTE HARTZEA; UDAL ARAUDI ORGANIKOA BERRITU BEHARRA.**

**27.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ LA PARTICIPACIÓN INSTITUCIONAL DE VECINAS, VECINOS Y ASOCIACIONES. NECESIDAD DE UN NUEVO ROM.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du, honela dio:

Maitane Nerekan da lectura a la moción que indica lo siguiente:

Pasa den urtean Gobernu Taldeak konbokatu gintuen gainerako alderdi guztiak, ROM delakoa zaharkituegia zela eta, berau aldatzeko eztabaida prozesu

El año pasado el Grupo de Gobierno nos convocó al resto de partidos a un proceso de debate para la renovación del actual ROM, al estar éste totalmente anticuado.

batera. Bi bilera egin izan genituen alderdi guztien artean eztabaida prozesu horren baitan , eta iazko maiatzaren 2tik zain gaude, inoiz ailegatzen ez den ROMaren artikulatua gaurko legeriari nola egokitu esango duen txosten juridiko bat dela medio.

Se realizaron dos reuniones, y desde el 2 de Mayo de 2013 nos encontramos a la espera de un informe técnico sobre cómo articular el ROM según la legislación actualmente vigente, informe que no acaba de llegar.

Indarrean dagoen ROM honek muga oso argiak ditu herritarren parte hartzeari dagokionez:

-Osoko Bilkuran elkarteek parte hartzeko duten aukera bakarra alkatearen esku uzten da.

-Mozioak soilik alderdiek aurkeztu ditzakete, eta gainera Alkateak bazterrean uzteko aukera izan badu.

-Herritar interesatu eta elkarteek ez daukate Batzorde Informatiboetan parte hartzerik.

-Herritarren audientzi eta informazio eskubideak ez daude erregelatuta.

-Ez dira demokrazia zuzeneko euskarririk aurreikusten: kontsulta, adibidez.

-Herritarren parte hartzerako organoen sortzea ez du erregulatzen, ezta bere eginkizunak ezartzen.

-Emakumeak ez dira aipatuak testu osoan, behin ere ez. Testua guztiz androzentrikoa da.

El actual ROM pone trabas muy claras a la posibilidad de participación ciudadana:

- Deja al albur de alcaldía la única posibilidad de participación de colectivos y ciudadanía en el Pleno.
- Las mociones sólo pueden ser presentadas por los grupos y pueden ser vetadas por alcaldía.
- Las comisiones no son abiertas.
- No están regulados los derechos de información y audiencia a favor de la ciudadanía.
- No se prevén sistemas de democracia directa como la Consulta.
- No regula la creación de órganos de participación ciudadana ni establece sus atribuciones.
- Las mujeres nos son citadas ni una vez en todo el texto. El ROM es totalmente androcéntrico.

Agerian dago, geroz eta ageriago, Getxoko udalerrian beharrezkoak direla benetako parte-hartzeari ateak zabaltzeko neurriak hartzea, eta lehenetariko bat ROM delakoaren baitan helburu horri begirako adostutako aldaketak egitea.

Queda claro, cada vez más , que es necesario tomar nuevas decisiones para abrir las puertas a la participación institucional real de la vecindad y las asociaciones del pueblo, y que una de las decisiones primordiales es hacer cambios en la redacción de un nuevo ROM en el camino de la participación popular.

Hori dela eta ondoko hau eskatzen diogu Osoko Bilkura honi:

Por todo ello, declaramos como corporación en Pleno que:

-Gobernu Taldeak ROM zaharkitua aldatzeko prozeduran daraman borondate eza salatzea

-Gobernu Taldeari eskatzea ROM berria egiteko plan zehatz eta data argiekin aurkeztu dezala gauden legislatura honen baitan burutzeko.

-ROM berriaren diseinuan herritarrek eta elkarteek parte har dezaten foro bat aurreikusia izan dadila.

-Denunciamos la inoperancia del equipo de gobierno para gestionar eficazmente la renovación del actual y desfasado ROM.

-Pedimos al equipo de gobierno que presente, a la mayor brevedad, un plan concreto y con fechas concretas, para la renovación del ROM en esta presente legislatura.

-Que ese plan contemple un foro de participación que posibilite a la ciudadanía y asociaciones la participación en la elaboración de un nuevo ROM.

Maitane Nerekan andrearen iritziz, mozioak ez du arrazoibide gehiagoren beharrik, nabarmena baita herritarren parte-hartzea ez dela benetakoa. Bere ustez, ROM erreformatzeko Gobernu Taldearen interesik ezaren arrazoia erreforma orok auzotarren parte-hartze handiagoa ekarriko lukeela da. Mozioarekin, oposizioko gainerako taldeek ROM erreformatzeko prozesua bultzatzeari dagokionez duten jarrera ezagutzea eta datak eta herritarren parte-hartzea zehaztea da.

Maitane Nerekan opina que la moción no necesita mayor argumentación ya que es evidente que no existe una participación ciudadana que sea real. Cree que la falta de interés del equipo de gobierno en reformar el ROM se debe a que toda reforma supondría una mayor participación vecinal. Con la moción buscan ver la posición del resto de los grupos de la oposición respecto a empujar un proceso de reforma del ROM que fije fechas concretas y la participación ciudadana.

Agustin Ruiz jaunak adierazten du talde sozialistak mozioaren aldeko botoa emango duela talde sozialistak herritarren parte-hartzeari eta ROM erreformatzeari dagokionez egindako proposamenarekin koherentzian. Ildo horretatik aurkeztu dituzten mozioak zehazten ditu. EAJ-PNV taldeak erreforma-batzorde bat eratzea proposatu zuela adierazten du eta, egun, batzorde hori gelditута dago, txosten juridikoaren zain, aldaketa luzatzeko. Mozioen bitartez hartutako Osoko Bilkurako erabakiak badaudela eta horiek ROM aurkaesaten ez dutenez aplika daitezkeela deritzo.

Agustín Ruiz manifiesta que el grupo socialista va a votar a favor de la moción en coherencia con la propuesta del grupo socialista con la participación ciudadana y la reforma del ROM. Detalla las mociones que han presentado en este sentido. Indica que el PNV propuso la creación de una comisión de reforma, que está paralizada a la espera de un informe jurídico, para dilatar su modificación. Estima que hay acuerdos plenarios adoptados a través de mociones que podrían aplicarse porque no contradicen el ROM.

Mozioa bozkatu egiten da eta ez da onartzen Bildu eta PSE-EE taldeen aldeko 6 boto, EAJ-PNV taldearen

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, Bildu, PSE-EE; 10 votos en contra, PNV y

aurkako 10 boto eta PP taldearen 9 abstentzio-boto lortzean.

9 abstenciones, PP.

Jarraian, Keltse Eiguren andreak esku hartzen du botoa azaltzeko txandan Gobernu Taldearen izenean gai hori Osoko Bilkuran behin eta berriz jorratu dela adierazteko eta, baita, iaz berrikuspen-prozesu bat hasi zela eta horretan darraiela adierazteko ere. Horregatik bozkatu dute mozioaren aurka.

A continuación interviene Keltse Figuren en turno de explicación de voto para manifestar, en nombre del equipo de gobierno, que este tema ha sido tratado en diversas ocasiones en el pleno y que el año pasado se inició un proceso de revisión en el que se está en este momento y por eso han votado en contra.

**28.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ETXEBIZITZA DUINA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA ESKUBIDE GISA.**

**28.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ DERECHO A UNA VIVIENDA DIGNA Y A LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du, honela dio:

Maitane Nerekan da lectura a la moción que indica lo siguiente:

Bost urte beteko dira aurten EAJ eta PSEk "Etxebizitza Plana hiri-lurzoruan" akordioa sinatu zutenetik. Plan horren helburuetako bat *"…gazteei, pertsona nagusiei etxebizitzarako sarrera erraztea,…"*; bost urte pasa ondoren, datuek erakusten dute Planak ez duela lortu etxebizitzarako sarbidea erraztea eta ez duela bermatzen etxebizitza duinerako eskubidea : gazteak herritik badoazela erakusten duten datu estatistikoak, Alangoko promozioan %100etik gora uko egitea, etxebizitza hutsaren arazoak bere horretan dirau etab. Planaren printzipioen artean honako hauek irakur ditzakegu:

- *Etxebizitza sozialaren eskaera betetzea.*
- *Udalerriko etxebizitza librearen merkatuan eragitea, etorkizunean orekatuagoa eta iraunkorragoa izate*

Este año se cumplirán 5 años desde que PNV y PSOE firmaron un acuerdo de "Plan de Vivienda en suelo Urbano". En dicho plan uno de los objetivos impulsores del mismo figuraba el de *"…Mejorar el acceso a la vivienda a jóvenes, personas mayores,…"*, pues bien, los datos demuestran que el Plan de Vivienda no responde a las necesidades de vivienda ni garantiza el derecho a una vivienda digna: más del %100 de renuncias en la promoción de Alango, ninguna vivienda en alquiler ejecutada, estudios estadísticos que demuestran el éxodo de jóvenes en busca de vivienda más accesible, problema de viviendas vacías igual que siempre…

Entre los principios rectores de dicho Plan, se puede leer:

- *Cubrir la demanda social de vivienda.*
- *Incidir en el mercado de la vivienda para que sea socialmente equilibrado y*

*aldera.*

- *Babestutako alokairuzko etxebizitza parke publikoa sortu.*
- *Hiritarrei kontsulta egitea, beren beharrak definitzeko eta etxebizitza politika publikoak prestatzeko.*
- *Aginduzko epeen barruan, gehien bat partikularren eskuan dagoen hiri lurraren kudeaketa espedienteen izapideak arintzea.*

Zoritxarrez, egun, bultzatu nahi izan zituzten 918-1279 etxebizitzetatik (2011ko Maiatza baino lehen) 218 BPE egiteko 3 lizentzia baino ez dira eman, zeinetatik batzuk ez dira eraikitzen hasi ere egin. Etxebizitza politika publikorik ez izatea eta neurri guztiak esku pribatuetan uzteko erabakiak, Getxo Euskal Herriko etxebizitza garestiena eta, beraz, eskuraezinena duen herrien artean kokatzea ekarri du.

Beste printzipio nagusien artean hauek ere jasotzen ditu Planak:

- *BPE erregimenen batean ezarritako etxebizitzak bultzatzea, Udal Lurzoru Ondarea den lursailetan.*
- *Etxe libreentzat zuzendutako Udal Lurzorua enkante publiko bidez besterendu (III Eranskina) , Udal Lurzorua areagotuz eta hau Babes Publikoko Etxebizitzak (BPE) eraikitzeko erabiliz.*

Dakigun bezala, Udal Lurzoru Ondareari dagozkion lurrak (Kortiñe eta Aixerrota) besterendu egin dira eta Getxo Antzokia finantzatzeko erabili da; bestalde, egiteko dauden

*sostenible en un futuro.*

- *Crear un parque de vivienda protegida en alquiler.*
- *Consulta a la ciudadanía en la definición de sus necesidades y en la elaboración de una política pública de vivienda.*
